BIZITEGI ERAIKINA — ERREGE KATOLIKOAK 6

D MAILA





Egilea eta data: Manuel Echave; 1906

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1924ko bi jasodura (lehena mantsarda txapituladun moduan eta bigarrena atzeraemana), betiere Larramendi 8rekin eta Sanchez Toca 7rekin komuna duen jasodura proiektu baten arabera. Harlanduzko fatxada, zurezko begiratokiak dituena alboetako baoetan. Kanpoaldeari dagokionez eraikitakoaren eta proiektatutakoaren artean aldeak daude (proiektuak Art Deco apaindura-xehetasunak zituen, erlaitz uhindua, eta abar). Proiektu komuna Sanchez Toca 7rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatua eta atzeraemana (5. eta 6. goi oinak, hurrenez hurren).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokiak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokien tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.